



## **Gorlizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazteko zerbitzuen lizitazioa**

Udalbatzak 2013ko uztailaren 29ko bilkuran hartutako akordioarekin bat, iragarki honen bidez prozedura ireki baterako deia egiten da ondoko zerbitzua esleitzeko: **"Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazteko zerbitzuen lizitazioa"** Kontratua arautze harmonizatupean burutuko da, eta esleipena hainbat irizpide erabiliz —besteak beste, ekonomikoki abantaila gehien dituen eskaintza—. Hona hemen kontratuaren datuak:

**1.- Erakunde esleipen-egilea:** Gorlizko Udala.

**2.- Kontratuaren helburua.**

**a) Xedearen deskribapena:** "Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazteko zerbitzuen lizitazioa"

**b) Kontratua burutzeko lekua:** Gorliz.

**c) Burutzeko epea:** 30 hilabete

**3.- Izapideak, prozedura eta esleitzeko modua.**

**a) Izapidetzea:** Ohikoa.

**b) Prozedura:** Irekia.

**c) Modua:** Arautze harmonizatupeko kontratua, hainbat esleipen-irizpide erabiliz.

**4.- Lehiaketaren oinarritzko aurrekontua:** Zenbateko garbia: 231.404,96 euro; BEZ, %21, 48.595,04 euro. Zenbateko osoa: 280.000,00 euro.

**5.- Bermeak:** Administrazio Hitzarkinen Orrietan ezarritakoaren arabera.

**6.- Dokumentazioa eta informazioa lortzea:**

**a) Entitatea:** Gorlizko Udala, Herritarren Arretarako Zerbitzuan, 9:00-13:00.

**b) Helbidea:** Eliz Plaza, z/g.

**c) Herria eta posta-kodea:** 48630-Gorliz.

**d) Telefonoa:** 94.677.01.93

**e) Telefaxa:** 94.677.58.07

**7.- Bestelako baldintzak:** Espainiarrak ez diren enpresek beren kaudimena egiaztatu beharko dute Arlo Publikoaren Kontratuei buruzko Legean ezarritakoaren arabera.



**8.- Dokumentazio-eskariak jasotzeko epea:** 2013ko urriaren 2ko 13:00 arte.

**9.- Eskaintzak aurkeztea:** 2013ko urriaren 9ko 13:00 arte.

**10.- Eskaintzak irekitzea:** Gorlizko Udaletxean, lehiatzaile bakoitzari nahiko aurretiaz jakinaraziko zaizkien egun eta orduan.

**11.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa eta gainerako baldintzak eta informazioa:** Administrazio Hitzarkinen Orrietan ezarritakoaren arabera.

**12.- Iragarkiaren gastuak:** Udaletxearen kontura.

**13.- Iragarkia Europako Batasunaren Aldizkari Ofizialera bidalitako eguna:** 2013ko abuztuaren 30ean.

**Gorliz, 2013ko abuztuaren 30a**

**ALKATEA**

**Arantza Etxebarria Villabeitia**